BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3548

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, 2011ko uztailaren 27ko Agindua, merkataritza-banaketaren sektorean berrikuntza eta bikaintasuna garatzera bideratutako laguntza-programa arautzen duena, aldatzeko dena.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko uztailaren 27ko Aginduak merkataritza-banaketaren sektorean berrikuntza eta bikaintasuna garatzera bideratutako laguntza-programa arautzen du [EHAA, 154, 2011ko abuztuaren 16koa].

Merkataritza-sektoreko profesionalen gaitasunak hobetzea eta merkatuaren benetako beharretara egokitzea lehen mailako helburu estrategikoa da Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren eskumeneko jarduera-esparruan.

2011ko uztailaren 27ko Aginduak merkataritza-banaketaren sektoreko enpresek beren kudeaketa hobetzeko diru-laguntzak arautzen zituen, eta bi ziurtapen mota aipatzen zituen: UNE 175001 arauaren ziurtapena eta erdiko mailako ziurtapena (Merkataritza Bikaina). Erdiko mailako ziurtapenaren konplexutasuna zela-eta, ekitaldi bat baino gehiago behar zen prestakuntza burutzeko eta, hartara, zegokion ziurtapena lortzeko.

Ziurtapen-sistema hori amaitutzat ematea erabaki du Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailak, eta beste bide batzuetatik heltzea kudeaketa hobetzeari. Hala ere, kontuan izanik enpresa batzuk prestakuntzan aurreratuta daudela eta enpresak kudeatzeko erdiko mailako ziurtapena lortzear daudela, beharrezko iritzi dio haientzako azken deialdia egiteari.

Bestalde, Euskadiko merkataritza-sektoreak programa ezarri zenetik banaketa-sektorearen aldaketetara egokitzeko egin izan dituen eskaerei erantzute aldera eta banaketa-sektorearen berrikuntza eta enpresa-lehiakortasuna hedatzeko eta hobetzeko ahal bezainbat ekintza egite aldera, beharrezko iritzi diogu aipatutako aginduko zenbait artikulu aldatzeari eta, zehazki, merkataritza-berrikuntza hedatzeko eta sustatzeko jardueretarako laguntzen zenbatekoa doitzeari.

Horiek horrela, honakoa

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– 2011ko uztailaren 27ko Aginduko 6.1. artikulua aldatzen da. Hona artikulu berria, hitzez hitz:

«Diru-laguntza har dezaketen jarduerak.

Honakoak hartuko dira agindu honen arabera laguntzeko moduko jardueratzat:

1.– 5.1.A) artikuluko 1. eta 2. puntuetako erakunde traktoreei dagokienez, Merkataritza Bikaineko programak (erdiko maila, brontzezko Q-a, merkataritzaren bikaintasunerantz aurrera egiteko erreferentziazko esparruan bilduak) garatzeko proiektuak, betiere, baldintza hauek betetzen badira:

a) Parte hartzen duten merkataritza-enpresak ETEak izatea, Batzordearen 2008ko abuztuaren 6ko (EE) 800/2008 Erregelamenduaren I. eranskinaren arabera [Europar Batasuneko Aldizkari

Ofiziala, L214, 2008ko abuztuaren 8koa] edo hura ordezkatzen edo aldatzen duten xedapenen arabera, eta, gainera, prestakuntza-prozesua diru-laguntzen programa honen aurreko deialdietan hasi izana eta aurreratuta egotea. Alde horretatik, honakoa hartuko da prestakuntza-prozesua aurreratuta egotetzat: gehienez ere bi modulu falta izatea prestakuntza-prozesua burutzeko.

b) Kalitatea eta merkataritza-bikaintasuna kudeatzeko sistemak bultzatzeko eta sustatzeko prestakuntza-programak Euskalitek Merkataritza Bikaina Programarako homologatutako prestatzaileek ematea eta haien prestakuntza-metodologia Programaren helburuekin bat etortzea.

c) Hiru eskaintza eskatzea gutxienez ziurtatzaileak eta prestatzaile homologatuak kontratatzeko eta irizpide hauek balioestea: prestakuntza eta merkataritza-jardueraren ordutegiak bateragarriak izatea, prestakuntza-metodologia programaren helburuekin bat etortzea eta eskaintza ekonomikoa onena izatea.

d) Oro har, proiektuak laguntza-eskabidea aurkezten den urteko abenduaren 31 baino lehen gauzatzea, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailak proiektuen gauzatzea koordinatzea eta ikuskatzea».

2. artikulua.– 2011ko uztailaren 27ko Aginduak, merkataritza-banaketaren sektorean berrikuntza eta bikaintasuna garatzera bideratutako laguntza-programa arautzen duenak, 7.3. artikuluan xedatzen duena aldatzen da. Hona artikulu berria, hitzez hitz:

«7. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

3.– 6.3. artikuluko jarduerak egiten dituzten erakundeen kasuan.

Diru-laguntzen zenbatekoa diru-laguntza har dezaketen gastuen % 80koa ere izan daiteke. Gastu horiek kalkulatzeko, honakoak hartuko dira kontuan:

● Hizlariak kontratatzeko gastuak (gehienez ere, 100 euro orduko). Ostatu-, garraio- eta mantenu-gastuak ere hartuko dira kontuan.

● Egitekoa den jarduera sustatzeko gastuak.

● Jardueraren euskarri-dokumentazioa argitaratzeko gastuak.

● Bestelako edozein gastu arrunt, baldin eta jarduera egitearekin lotuta badago zuzenean, erakunde eskatzaileko langileen gastuak izan ezik.

Diru-laguntza har dezaketen gastuen guztizko zenbatekoa jarduera bakoitzeko 1.700 eurokoa izango da gehienez ere: 1.000 euro hitzaldiagatik eta 700 euro gainerako gastuengatik.

Urtean laguntza eskatzen duten jarduera guztietarako diru-laguntza 7.000 eurokoa da gehienez ere».

XEDAPEN GEHIGARRIA

2011ko uztailaren 27ko Aginduak, merkataritza-banaketaren sektorean berrikuntza eta bikaintasuna garatzera bideratutako laguntza-programa arautzen duenak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko Sailari buruz egiten dituen aipamenak Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko Sailari buruzko aipamentzat hartu behar dira, lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak, uskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, xedatzen duenarekin bat.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabetean agindu hau argitaratu eta biharamunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 30a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.